

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com

**KALEAN
EZ
ADITUA**
xake mundiala



Iñigo Puncel, artilez egindako isolatzailearekin lanean. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

latzen du artilezko isolatzaileak, dioenez, eta konbentzionalek neguan. «Artileak oso ezaugarri berezia dutelako gertatzen da hori; hezetasuna erregulatzen du. Hezetasun handia dagoenean xurgatu egiten du, bere ezaugarri teknikoak galdu gabe, eta hezetasun txikia dagoenean, askatu. Neguan etxea bero izaten laguntzen du horren ondorioz, eta udan, berriz, freskatzeko. Gastu txikiagoa dakar horrek berogailu eta aire girotuan».

Beste produktuak

Artilearekin egindakoa da, oraingoz, eurek egiten duten produktu bakarra, baina gehiagorekin has-teko asmoa dute. Oraingoz, kor-

Eurek moztutako artilearekin ekoizten dituzte isolatzaileak Puncel anaiek

Hezetasuna kontrolatzea da isolatzailearen ezaugarri bereizgarria

Artilea etxerako isolatzailea

Eurek ekoiztutako artilez egindako isolatzaile naturala saltzen dute Julen eta Iñigo Puncel anaiek

Iñigo Astiz Orikain

Hamalau eta hamabi urtez izan dira ardimoztaileak Iñigo eta Julen Puncel anaiek, hurrenez hurren, eta Bioklima Nature enpresa sortu zuten duela hiru urte, etxeak isolatzeko produktu ekologikoak saltzeko asmoz. Ez diete, halere, ardiei bizkarrara guztiz eman, artilez egindakoa baita saltzen duten etxeetarako isolatzailea.

Zeelanda Berrian izan zuten lehen aldiz isolatzaile ekologiko horren berri, Julen hara lanera joan zenean. «Orduan entzun genuen hartaz lehen aldiz», azaldu du Iñigok. Baina bere etxea

eraikitzen ari zela erabaki zuten enpresa sortzeko ordua zela. «Teilatuta heldu nintzenean, zerbait naturala eta ekologikoa jarri nahi nuela erabaki nuen, eta hemen halakorik erosteko modurik ez zegoela ohartu nintzenean, gu geu hastea pentsatu genuen».

Puncel anaiek dira Euskal Herrian halako isolatzaileak ekoizten hasi diren lehenak, eta, oraingoz, baita bakarrak ere.

Nafarroako artilea erabiltzen dute horretarako. «Euskal Herrian bi ardi arraza dira nagusi: latxa eta rasa. Bi horiekin egiten dugu guk lan. Rasarena izaten da isolatzaileak duen artilearen %80, ile motzagoa duelako, eta %20 inguru, berriz, latxarena, luzea duelako, eta bestea hobeki lotzen laguntzen duelako».

Hasieratik bukaerara kontrolatzen dute produktua. Irunberriko ardi moztailen taldean egiten dute lan bi anaiek ardiak moztzen, eta haiek moztutakotik hartzen

dute gerora isolatzaile gisa erabiltzeko artilea.

«Isolatzaile ekologikoa egitea lortu dugu, bai produktu amaieran, bai eta egitean ere. Askotan produktu ekologiko gisa saltzen direnak kutsadura handia eragiten dute ekoizte prozesuan. Gureak oso gutxi kutsatzen du, oso energia gutxi behar duelako, eta errespetagarria da, gainera, bai ingurumenarekin, bai eta pertsonekin ere».

Orain hondakina da artilea, Iñigoren hitzetan, «soberakina». Ez da, ordea, beti horrela izan. «Garai batean, festa handia izaten zen ardiak mozteko eguna. Lehen, dirua jasotzen zen artilearen truke, baina une honetan, egin behar delako egiten da, ilea mozteak dituen kostuak ere ez dira ordaintzen artilearen truke jasotakoarekin».

«Artzainek surik hartzen ez duelako ez diote ematen surik, bestela horixe egingo lukete. Gu hondakina denari, eta hemendik

aurrera ere izango denari, balio gehigarri bat ematen saiatzen gara».

Hezetasunaren kontrola

Euskal Herrian saltzen dute gehienbat, baina Sevillara (Espainia), Valentziara (Herrialde Katalanak) eta Galiziara ere saltzen dute. Jendeak artilezko isolatzailea dela entzun, eta harritu egiten da, Iñigok dioenez, baina beste edozein isolatzaile duen formatu bera dauka, eta berdin-berdin erabiltzen da. «Nola jartzen den erakusteko eskatzen digute batzuetan, hale-re, eta joan egiten gara, baina beste edozein bezala jartzen da, eta ez da horretarako benetako beharrik». Hasierako harridura gaituta, gainera, langileek eskertu egiten dute, Iñigoren hitzetan, artilearen goxotasuna. «Gainera, ez du azkurarik ematen ez azalean, ez eta eztarrian ere».

Udan nahiz neguan, bietan iso-

txoz eginiko isolatzailea, lumaz eginikoa, egur zuntzekoa, kalamuzkoa eta artilezko filtroa dira isolatzaile gisa saltzen dituzten produktuak. Jutezko tapakiak, kokozko eta jutezko sarea, lorezaintzarako. «Europara heltzen diren kakaok betetako zakuekin egiten dira jutezko tapakiak. Bota egiten ziren lehen, ezertarako balio ez zutelako, eta orain birziklatu egiten dira. Txikitu egiten dira zaku horiek, eta prozesu baten ondorioz sortzen dira tapakiak».

Horrez gainera, eguzki plakak, haize errotak eta bestelako produktu ekologikoak ere saltzen dituzte, etxea egiten ari zela Iñigok sumatu zuen beste hutsune bati erantzun nahian. «Erabili nahi nituen produktuak bilatzeko hara eta hona ibili behar izan nuen, saltzaileek hau bai baina bestea ez zutelako, eta nahi nuena lortzeko hainbat lekutara jo behar izan nuelako. Bide hori erraztu egin nahi dugu guk».